



TOLOSALDEKO  
ETA LEITZALDEKO

# hitza



Ostirala  
2009-02-06

VII. URTEA 1.622. ZENBAKIA  
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO

## Villabona Segundo Montes komunitatearekin senidetu da

**GIZARTEA** Udalbatzak atzo hartu zuen erabakia; Zizurkil, Aduna eta Asteasu ere senideturik daude

**EKITALDIAK** Datorren astean El Salvadorreko herriari buruzko argazki erakusketa eta hitzaldiak antolatu dituzte 4



Xabier Lasa eta Jon Zubizarreta, atzean Txindoki mendia dutela; 1.000 euro izango dituzte jokoan. NEREA URBIZU

## NORK UKITUKO DU LEHENENGO TXINDOKIKO TONTORRA?

**ABALTZISKETA** Xabier Lasak batetik, eta Jon Zubizarretak, Iñaki Gorostidik eta Mikel Senperenak, bestetik apustua egingo dute ekainaren 28an; bihar sinatuko dute udaletxean 5



A. IMAZ

**MIGEL MARI ELOSEGI 'LUZE'**  
BERTSOLARIA

«Erne Sotorekin  
une oso  
politean dago»

**LEITZA** Nafarroako  
Bertsolari Txapelketan ariko  
da etzi leitzarra, Beteluko  
final-laurdenetan 7

«AHTri ez  
esateko»  
Bizikleta Martxa  
antolatu dute  
biharko

**ALEGIA** Alegiatik Anoetara  
bidea egingo dute gaztetxe  
eta gazte asanbladekoek 6

## Z Zurea da hitza



Atal honetan zuen kezak, iradokizunak, eskertzak... argitaratzen ditugu ostiralero. Horiek guri helarazteko hainbat bide dituzue: Interneten, 'www.tolosaldekohitza.info' webguneko 'Zurea da hitza' atalean; e-mailaz, 'tolosaldean@tolosaldekohitza.info' helbidean eta 943 655695 zenbakian.

## Belabieta kiroldegia ekitaldietarako egokia?

Belabieta kiroldegian hainbat eta hainbat ekitaldi kultural antolatu dira. Guztiz aberasgarriak herriarentzat eta herritarrentzat noski; horrekin ez gara sartuko, baina, zalantza handiak sortzen zaizkigu bertako prestazio eta azpiegitura egokiak ote diren modu horretako ekintzak eskaini ahal izateko.

Kiroldegia modu honetako ekintza eta emanaldietarako presaturik ez dagoela esatera ausartzen gara. Izan ere, azken hilabeteko pare bat ekitaldietan egon baikara.

Adibide moduan atzo Alurr dantza taldeak eskaini zigan dantza emanaldia jarri nahi dugu mahai gainean. Tamalgarria da halako ekitaldi aberasgarria bere osotasunean disfrutatu ez izana.

Esaterako, jende kopurua gehiegiazkoa zen, hau dela eta ikusle askok lurra aukeratu zuten eserleku moduan aurreneko ilaretan. Honek, atzean geunden guztioi dantzariak bere osotasunean ez ikustea suposatu zigun.

Eta zer da ba dantza emanaldi bat, dantzarien hankak ikusi gabe?

Amaitzeko esan, kiroldegian egin behar diren lanak medio, hau kontutan hartzea ez legoikeela ba-

tere gaizki. Herrian daukagun ondare kulturalak merezi duelako. **Bi ibartar**

## Beste txakur kaka bat espaloian

Nazka nazka eginda nago! Berriz ere txakur kaka bat Tolosako espaloian batean. Hau ezin da ebitatu? ez da hain zaila hori biltzea ez (jabe horri zuzentzen naiz, noski)? Gainera, bat zapalduta zegoen, sorpresa ederra eramango zuen baten batek hankazpian...

Txakurraren jabeak poltsaren bat eraman behar badu, eraman dezala, edo paperezko zapiren bat bestela. Zer uste dute, garbitzaileak dabiltzalako, azken hauek jaso behar dutela kaka hori? Errespeta pixka bat eskatzen dut denekiko.

**Herritar bat.**

## Villabonako kiroldegiko klaseak erderaz?

kaixo! Villabonako spinning-eko ikaslea naiz eta harririk nago bertako irakasleekin. Klase gehienak, behintzat ni egon naizen irakasleekin erderaz ematen dira. zergatik hau? hiztegia ez da batere anitza honelako klaseak emateko eta hitz gutxi hauek ere erderaz esaten dituzte. Nire ustez esfortzu

## Z Zurea da hitza



## Santa Ageda Albiztur eta Kirikiñon

txiki bat egin beharko lukete gure herriaren hizkuntzan lan egin eta irakasteko. Eremu guztietara zabaldu nahi dugu euskara eta gero honelako kasuak txikikeriak iruditzen zaizkigu eta ez diegu erreparatzen.

Niretzat behinik behin oso garrantzitsua da. Eta bide batez aberatsa irakasleentzat ere. Espero

dutesfortzu txiki hori egitea. Eskerrik asko.

**Billabonatar bat**

■ **Tolosar bat.** «Ni Usabaleria joaten naiz spinning-era Tolosan: monitorea gehiena gazteleraz egiten du baina euskaraz saiatzen da zenbakiak eta «eseri» aginduak ematen eta musikan ere, tarteka jartzen du euskarazkoren bat. Hobe beraz, baina euskarazko musika gehiago eskertuko litzateke».

**Zulo ikaragarria lurreamendi egoitzaren sarreran**

Ikusi al duzue Tolosako Iurramendi egoitzaren sarreran dagoen zulo ikaragarria? behar bada ez duzue ikusi, kotxearekin maldan goran joanda ez baita ikusten, baina sentitu, sentitzen da!! zulo itzela da, aurretik egindako konponketa txapuzero askoren inguruan dagoena... benetan tamalgarria!! orain dela asko dago hor, konponketaren zai, baina inorrek ez du ezer egin! zeren zai daude! **Amaroztar bat.**

## G Gutunak

**Zergak eta okerreko erabakiak**

Joan zen abenduaren 30ean Tolosako Udaltzako aurrekontuak onartzeko eginiko Osoko Bilkuran ozen salatu genituen, herri interesen aurka hartzen ari ziren erabakiak. Inongo alderdi politikoak ez zuen ahotsik altxa zergak %4,9 igotzearen erabakiaren aurka, une hartan bertan urteko batz besteko KPIa %2aren inguruan zegoela jakin bazekitenean.

Ezker Abertzaleak, hartzen ari ziren erabakia gezurztat eta herritarrenganako iruzurtzat jo zuen batzarrean bertan. Gogoz saiatu zen PNV erabaki hura defendatzen eta gure salaketa baztertzen eta isilarazten.

Ezker Abertzalearen salaketaren harira, PNVren erabakiaren aurka ugari izan dira komunikabidean eta udalera zuzenduriko gutunetan eta telefonoz bidezko deietan haserre altxatu diren ahotsak.

Azkenean, Udalak atzera jo beste erremediorik ez du izan eta herritarren exijentziatar eta torri behar izan du.

Pozten gara behingoz bederen, hain burugabea zen udal erabakia zuzentzera bideraturiko herritarren presio eta eragina gailendu izanaz.

**Antton Izagirre, Eider Elduaien, Hektor Espin eta Silvana Ostiza, ezker abertzaleko hautetsiak.** (Tolosa).

## K Kirol jarduera

**Gaur, ostirala****Areto futbol**

■ Usabalgo goiko kantxan, 20:30etik aurrera: Laskorain-Euro-mar.

**Bihar, larunbata****Futbola**

■ Berazubiko futbol zelaian, 16:30ean Gazteen Nazional Maila Tolosa CF-- Peña Atleti Santurtzi.

■ Usabalgo futbol zelaian, 09:30ean, emakume kadeteak (F-8): Tolosa CF-Allerru.

■ Usabalgo futbol zelaian, 11:00etan, infantilen Ohorezko Maila: Tolosa CF-Añorga.

■ Usabalgo futbol zelaian, 12:30ean, kadeteak: Tolosa CF-Eibar.

■ Usabalgo futbol zelaian, 15:30ean, jubenilen Lehen Mailan: Amroz-Urnieta.

■ Usabalgo futbol zelaian, 17:30ean, kadeteen Lehen Mailan: Tolosa B-Aurrera Ondarroa.

**Saskibaloia**

■ Usabalgo goiko kantxan, 10:30etik aurrera, infantilak. Nesketan, TAKE-Easo Eskola 96; mutilan, TAKE. Askatuak.

■ Usabalgo goiko kantxan, 12:00etatik aurrera, kadeteak. Nesketan, TAKE B-Andraitz Loyola; mutilan, lehenik, TAKE Tovar-Ordizia, ondoren, TAKE B-Andraitz.

**Areto futbol**

■ Usabalgo goiko kantxan, 16:00etan, Tolargi-Pinturas Etxadi.

■ Usabalgo goiko kantxan, 18:00etan, Laskorain-Euskalduna.

**Eskubaloia**

■ Usabalgo beheko kantxan, 12:00etan, Tolosa-Pulpo.

**Etzi, igandea****Futbola**

■ Usabalgo futbol zelaian, 11:00etan, lurraldekako Lehen Maila: Tolosa CF-Lazkao.

**Eskubaloia**

■ Usabalgo goiko kantxan, 12:00etan, seniorrak: Tolosa-Amenabar.

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta  
Gipuzkoako beste 4 Hitzetan  
DOAN agertuko da

**HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle**

hilberriak  
urteurrenak  
eskertzak

## Asturiasera bidaia antolatu du Harizpe elkarteak, apirilera

**Tolosa** » Sei eguneko iraupena izango du txangoak, eta izena emateko epea zabalik dago dagoeneko.

### ERREDAKZIOA

Harizpe jubilatua eta pentsiodunen elkarteak Asturiasera bidaia antolatu du. Apirilaren 23an aterako dira Tolosatik eta sei egun igaroko dituzte bertan. Bidaiaren prezioa bazkideentzat 255 eurokoa da, eta gainontzekoentzat, 260. Bakarkako gelengatik 90 euro gehiago ordaindu beharko dira. Honen baitan sartzen da autobusa, joan-etorria, txangoak eta pentsio osoa edariarekin. Joan nahi duenak apirilaren 16ra arte du txartela erosteko. Hau elkartearen bertan egin daiteke.

Santa Klaratik aterako dira apirilaren 23an eta Cangas de Onisera bideratuko dira, bazkaltzeko. Ondoren, Covadonga joango dira. Hurrengo egunetan, Luarga, Avile, Oviedo, Gijon, Ribadesella, Candas, Redes Parke eta Laviana bisitatuko dituzte. Apirilaren 28an iluntze aldera itzuliko dira Tolosara.

## Trasmosomos eta Iloso mendiak igotzeko aukera Alpino Uzturrerekin

**Tolosa** » Igande honetan egingo dute txangoa; Balmasedan hasiko dira eta San Juan de Berkizen amaitu.

### ERREDAKZIOA

Alpino Uzturre elkarteak mendi irteera bat antolatu du etzirako, hau da, iganderako. Txangoa Balmasedan hasiko dute eta San Juan de Berkizen amaitu. Tarte horretan Trasmosomos (698 metro) eta Iloso (564 metro) mendiak igotzeko dituzte. Ibilaldiaren iraupena gutxi gorabehera bost ordu eta erdikoa izango da.

Autobusa Tolosako Santa Klaratik abiatuko da igande goizean, 07:30ean hain zuzen ere. Joan nahi duten bazkideek 11 euro ordaindu beharko dituzte txangoagatik, eta gainontzekoek, bi gehiago, 13. Izen-ematea hiru modutan egin daiteke, egoitzara bertara hurbilduta; telefonoz, 943 65 27 89ra deituta edo Internetez, [alpinouzturre@hotmail.com](mailto:alpinouzturre@hotmail.com) helbide elektronikoa.



Zuhaitz eta landare aukera zabalak izango dira bihar Triangulon ikusgai; denora, 15 mintegi izango dira. N. GARCIA

# Urteko lehen azoka berezia, zuhaitzena izango da bihar

**Tolosa** » Hamalaugarren aldiz, Zuhaitzen Eguna egingo da; aurten estreinakoz mintegi ekologiko bat izango da.

### ERREDAKZIOA

Tolosan ugariak dira urtean zehar egiten diren azoka bereziak, astero merkatuak ahaztu gabe. Aurtengo lehendabizikoa asteburu honetan izango da, hau da, bihar. XIV. Zuhaitz Eguna ospatuko da Tolosan.

Honenbestez, Triangulo plaza zuhaitz, zuhaixka eta bestelako landarez beteko da. Urteroko mintegiek ez dute hutsik egingo egun honetan, jendearen nahia asetzeko prest.

15 mintegi izango dira era guztietako produktuak ekarri: fruta arbolak, baso landareak, landare usaingarriak... Landare eta zuhaitzen aukera zabalak izango du beraz bertaratzen denak.

### Asteburueroko ohitura

Larunbatero tradizio handiko azoka egiten da Zerkausian: produktu naturaleko azoka, garaian garaiko produktuekin, barretatik zuzenean ekarritakoak, erosle eta saltzaile arteko harreman zuzenarekin.

Aipamen berezia merezi dute ere larunbatero Atadi kalean egiten diren mintegiek: Agirretxe mintegia (Donostia), Arakama mintegia (Zegama), Dorronsoro mintegia (Ataun), Garitaonandia mintegia (Zaldibar), Lasamintegia (Albiztur) eta Urkizu mintegia (Anoeta). Larunbat honetan hauek ere, beraien betiko lekua

utzi eta Triangulo plazan egongo dira azoka berezian parte hartuz.

Egun hau landare eta zuhaitz mota ugari ikusi eta erosteko proposa izateaz gain, haiei buruzko zehaztasunak galdetzeko ere egokia da. Izan ere, gustura erantzuten diete mintegietako arduradunek bertaratutakoek kezka eta galderei.

### Estreinakoz, mintegi ekologiko

Aurtengoan, lehenengo aldiz, mintegi ekologiko bat izango da. Zarautzik dator, Blasenea, eta batez ere fruitu txikien zuhaixkekin etorriko da: mugurdiak, ahabiak, arakatzak, andere mahatsak, mastusa zuhaixkak... Barretzeko landare ekologikoetan espezializatua egon arren, zuhaitz eta zuhaixke-

### » PARTE-HARTZAILEAK

- **Abaro.** Zaldibar.
- **Agirretxe.** Donostia.
- **Arakama anaiaik.** Zegama.
- **Aranburu.** Aginaga.
- **Areitio.** Zaldibar.
- **Belar.** Zaldibar.
- **Blasenea.** Zarautz.
- **Chavarri.** Alfaro.
- **Dorronsoro.** Ataun.
- **El montañes.** Tafalla.
- **Guillen.** Pueyo.
- **Jaizkibel Haztegia.** Lezo.
- **Magalarte.** Zamudio.
- **Urkizu.** Anoeta.
- **Victor Lasa y otra CB.** Albiztur.

kin ere lanean hasi direnez, Tolosako azoka hau aukera polita izango da produktu hauek ikusteko, eta nola ez, erosteko ere.



Jendeak mintegietakoei gomendioak eskatzeko aukera ere izango du. N. GARCIA

## Laburrak

### Dantza-sokako azken entseguetako bat, gaur

**ANOETA** » Urteroko ohiturari jarraituz, Dantza-soka Eguna ospatuko dute Anoetan otsailaren 14an. Hori dela eta, entseguak egiten hari dira azken asteetan. Hala, azkenak gaur eta datorren ostiralean izango dira. Hauek Edukan egingo dira, 18:30etik aurrera.

### Zizurkilgo eta Tolosaldeko Korrika batzordeen bilerak

**EUSKARA** » Datorren asteartean Korrika Batzordeen bi bilera izango dira eskualdean. Alde batetik, Tolosako Lizardi elkartearen Tolosaldeko Herrien Korrika Batzordea bilduko da. Bilera 19:30ean izango da. Bestetik, Zizurkilgo Atxulondo Kultur Etxean bertako Korrika batzordea bilduko da, 20:00etik aurrera.

### 'La ola' filma ikusgai izango da asteburuan, Gurean

**VILLABONA** » Dennis Gansel zuzendariaren *La ola* (Die Welle alemanez) filma izango da ikusgai asteburu honetan, Gurea antzokian. Film aleman dramatikoa da hau, eta hirugarren olatuaren esperimintuan oinarritua dago. Arrakasta handia lortu du Alemaniako zinemetan, eta orain, hemen ere ikusteko aukera izango da. Gaur 22:00etan izango da lehendabizikoa saio. Bihar berriz, 17:00etan eta 22:30ean izango da ikusgai; eta igandean, 19:30ean. Azkenik, astelehenean, ikuslearen egunean, 21:30ean eskainiko dute.

### 'Piratak' emanaldirako sarrerak salgai daude jada

**TOLOSA** » Galtzaundi Euskara Taldeak antolatuta, Pirritx, Porrotx eta Mari Mototsek *Piratak*, beraien azken ikuskizuna eskainiko dute Leidor antzokian. Ekitaldia martxoaren 14an izango da. Bi saio izango dira, bata 16:30ean eta bigarrena, 18:30ean. Sarrerak salgai daude dagoeneko. Hauek ondorengo lekuan eskura daitezke sei euroren truke: Galtzaundiko egoitzan, Leidor antzokiko leihatilan eta [www.kutxa.net](http://www.kutxa.net) webgunean.

## Iragarki laburrak

### LANA

■ **Bigi garbiketak.** Alfonbrak, etxek, bulegoak eta abar garbitzeko prest. Deitu inongo konpromisorik gabe. Irena: 695 70 82 71 eta 695 70 82 71.

### SALGAI

■ **Etxea.** Etxebizitza salgai. Tolosako Alde Zaharrean. Merkea, obra egin beharra dago. Interesatuek deitu: 657 23 00 11 edo 634 91 94 82ra.

# Villabona ere senidetu da Segundo Montes komunitatearekin

**Villabona** » Aurretik Aiztondon Aduna, Asteasu eta Zizurkil senidetuta daude; datorren astean ekitaldiak antolatu dituzte.

**IMANOL GARCIA**

Villabonako Udalbatzak El Salvadorreko Segundo Montes komunitatearekin senidetzea erabaki zuen herenegun arratsaldean egindako osoko bilkuran. Kontuan hartu dute Aiztondo bailarako beste udalerririk batzuk, hau da, Aduna, Asteasu eta Zizurkil aurretik senidetuta daudela; hiru hauek eta Eukal Fondoaren gonbitea onartu dute, komunitate horrekin senidetzeko. «Villabonako Udalak komunitate horri bere babesa eta laguntza eskaini nahi dio», azaldu du Josune Agirre zinegotziak.

Erabakiaren berri atzo egindako prentasurrekoan eman zuten. Bertan, Agirrez gain, Adunako Ainarra Iturrioz zinegotzia, Asteasuko Geronimo Otegi zinegotzia, Zizurkilgo alkatea Marian Lazkano, alkate ohia Mikel Arrastoa eta Kultura teknikaria Ainhoa Larrea eta Pedro Mari Otaño eskolako zuzendari Maria Jesus Zaldua eta irakasle Arantxa Lasai izan ziren.

Arregik azaldu zuenez, «askok pentsatuko dute gure egoera ekonomiko-politikoa haienarengandik oso goitik dagoela eta eskema sinplista edo merkatal-ekonomiko bat egingo dute, elkartruke honi balio gizatiarra eman gabe». Baina komunitate horrengandik «zer ikasia» dagoela uste dute Udaletik. «Besteak beste, urte askotako gerra eta gatazka gainditzea, bake negoziatua, gizarte antolatze eta era abar».

Aiztondo bailaratik dagoeneko jasotzen duten laguntzan «bultzada garrantzitsua» eman nahi diote Villabonako Udaletik, «elkarkidetzaren honek etenik izan ez dezan».

Senidetze horren ondorioz, kultura, kooperazio, hezkuntza, turismo, nekazaritza... mailetan burutu beharreko urratsak ematen laguntzen saiatuko dira.

## Herritarrei deia

Senidetzea ofizialki hartutako erabakia izan arren, «hemendik aurrera hasten da benetako lana eta ahalegina», nabarmendu du Villabonako zinegotziak. «Egin behar honetan deialdi bat luzatu nahi genieke herritarrei, beste herrietan bezala itsasoz bestaldeko komunitateari laguntza apur bat bidaltzeko bidean parte har dezaten».

Senidetzearen harira, zenbait ekitaldi antolatu dituzte datorren asterako Villabonan. Hala, Segundo Montes komunitateari buruzko argazki erakusketa izango da Gurea aretoko sarreran. Asteartetik ostiralera, 17:30etik 20:30ak bitartean egongo da zabalik. Horretaz gain, hitzaldi bat emango dute Mikel Arrastoa, Juanma Balerdik eta Ainhoa Larreak Subijana etxean, hilaren 11n 19:30ean.

Mikel Arrastoa azaldu zuenez, «Euskal Fondotik gonbitea luzatu ziguten senidetze bat egiteko eta El Salvadorrerara bisita egin genuen 1992an». Hainbat proiektu ikusi eta kontaktatu egin zituzten eta «berroald» baten ondorioz, musika talde bat ekarri zuten hona. «Ha-



Larrea, Iturrioz, Arrastoa, Agirre, Zaldua, Lasai, Lazkano eta Otegi, atzo Villabonan. I. GARCIA

rreman dezente izan genuen berriekin eta Segundo Montes komunitatekoak ziren». Hortik aurrera, 1994. urtean Zizurkil senidetu zen eta gero Asteasuk eta Adunak ere eman zuten pausoa.

## Zazpi baratza proiektua

Aurrera begira Segundo Montes inguruan egun bat izendatu nahi dute eta ekitaldiak antolatu egun horren inguruan. Arrastoak dioenez, «bertatik pertsona bat ekarri daiteke eta hango egoeraren berri eman dezake, hemengo herritarrek hangoen berri izateko». Eta gaineratzen du: «Batuztan osoko bilkuretan gelditzen da erabakia ta horregatik jarraipen bat eman behar diogula uste dugu».

Arrastoa bera, Ainhoa Larrea, Maria Jesus Zaldua eta Arantxa Lasai izan ziren El Salvadorren, komunitatea bisitatzen. Larreak azaltzen duenez, hainbat proiektu ikusten izan ziren eta Aiztondo bailaratik bultzatzeko horietako bat aukeratu zuten. «Haurtzaindegietan zazpi baratza egiteko 12.000 euro lortu behar dira eta hori bultzatzen ari gara. Kontu korronte bat irekita dugu horretarako», dio Larreak. Segundo Montes dute proiektu nagusia urtegi bat egitearena da eta Euskal Fondotik bideratzen ari dira horrentzako diru laguntzak.

Udaletatik dagoen lankidetzaz gain, eskolen arteko lankidetzarekin badago. Izan ere, Pedro Mari Ota-

ño eskola Segundo Montesez eskolarekin senidetu dago. «Horrek aukera ematen digu sentsibilizazioa egiteko gure ikastetxeen ikas komunitatean», zioen Maria Jesus Zaldua Otaño zuzendariak.

Ikasleen arteko komunikazioa eta bi kulturen ezagutzea lantzen ari dira. Bestalde, «hangobeharrak handiak dira eta ikastetxean ez dituzte mahaia eta aulkia. Guk ezin dugu proiektu handiak eraman, baina bai txikiak». Horrela, Otaño ikas komunitateak dirua biltzen ari da eskola-altzariak eta ordenadore bat erosteko. «Oso aberasgarria da nola ari diren komunitateko kiდეak pentsatzen diru hori lortzeko», dio Zalduak.

# Segundo Montes komunitatearen bidea

## ERREDAKZIOA

Mendi eta sumendiz beteriko herrialdea da El Salvador. «Bertan irauteko modu bakarra guztien ahaleginak batzea da», irakurri du Josune Arregik prentsaurrekoan. «Bizi bat bestearekin lotzen bizi-kate bat sortzen da, non norbanakoak bere buruan pentsatzeaz gain, bere ardura direla sentitzen duenetaz pentsatzen duen».

1980 urte inguruan El Salvadorren piztu zen gerra zela eta, «indar militarren basakeria jasan ezinik, hainbat familia xumek beraien lur eta etxetatik ihes egin behar izan zuten Honduraserara», gogoratu du Arregik. Han, komunitate horiek denbora gutxian «salto garrantzitsua egin zuten: indibidualismotik elkarbizitza komunitarioa pasaz». Besteak beste, analfabetismotik hezkuntza eredu garri bat lortu zuten.

El Salvadorren gatazka armatuak zirauen bitartean, Segundo Montes izeneko jesuita batek bere



Segundo Montes komunitateko irudia. HITZA

bizitzako azken urtean Honduraren zeuden errefuxiatuei laguntzen igaro zituen. «Interes berezia agertu zuen», azaltzen du Arregik, «ezerezetik sortzen zen gizatalde hauek antolamendu eredu garria. 1989an Segundo Montes El Salvadorrerara itzuli zirenean, exiliatu hauek Meanguera lur batzuetan tiroz eraila izan zen beste

zenbait jesuitekin batera. Horregatik komunitate honek berritua izan zuenean, Segundo Montes izena hartu zuten. Hamar urte inguru atzerrian igaro ondoren, El Salvadorrerara itzuli zirenean, exiliatu hauek Meanguera lur batzuetan kokatu ziren, errepide eta bide

nagusietatik gertu. «Esan zutenenez, kamio batek 1.500 joan-etorri egin behar izan zituen komunitateko kide guztiak eta zekartzaten gauzak toki batetik bestera eramateko», dio Arregik.

Itzulera gogorra izan zen. «Mendiak desertu bilakaturik zeuden 10 urteko gerraren ondoren eta amerikarrek gerrilla itotzeko erabilitako lur erre politikak bere arrastoak utzi zituen», azaltzen du zinegotziak. Komunitateko adinekoek azaldu zutenenez, ikusi zuten paisaia penagarria zen. Gobernuak bizitza berrantolatzeke utzi zieten lurretan ez zegoela ezer, ezta eraikin ere. «Soinean zutenarekin bizitzen hasi ziren», dio Arregik. «Etorkizuna eraiki behar zuten eta horretarako idazten eta irakurtzen zekien edonor irakasle bihurtu zen sorturiko herri eskolatan». 20 urte inguruan %95eko analfabetismotik %5era pasa ziren, «nazioarteko erakunde askoren harridurarako».

**Tolosako Udala**

**ERABAKIA**

2009ko urtarrilaren 27an izandako Osoko Bilkuran, gehengo absolutu legaren aldeko botoekin 2005. urteko Ordenantza Fiskalak eta eranskina aldatzea erabaki zuten.

Hartutako akordioak Udaletik iragarki taulan ageri dira 30 egun abletan zehar, iragarki hau G.A.O. agertu eta hurrengo egun abletetik hasita.

Epe honetan, 11/1989 Araru Foraldek 17. artikuluan aipatzen dituen interesdunek espediente aztertu ahal izango dute eta egokitzat jo dituzten erreklamazioak aurkeztu.

Informazio hau emateko epea amaitu ondoren, eta erreklamazioirik edo oharirik ez badago, hartutako erabakia behin betiko izango dira eta ez da beste erabakirik behar.

Tolosa, 2009ko urtarrilak 28an  
ALKATEA



# Txindokira nor lehenago igo, horretan datza bihar sinatuko duten apustua

**Abaltzisketa** » Batetik Xabier Lasa, eta bestetik, Zubizarreta, Senperena eta Gorostidi hirukotea lehiatuko dira ekainean.

## NEREA URBIZU

Txindokik gizakiaren indarrak edo mugak neurtzeko hainbat aitzaki eman izan ditu. Azkenekoa datorren ekainaren 28koa. Izan ere, Abaltzisketan apustu bat jokatu dute: plaza ingurutik Txindoki puntaraino igotzea ia nor iristen den lehenago. Probahankekin, korrika, nahi bezala egin beharko dute parte hartuko duten Xabier Lasak alde batetik, eta Jon Zubizarretak, Iñaki Gorostidik eta Mikel Senperenak bestetik.

Apustua formalizatzen hitzarmena sinatu behar dute bihar 16:30ean, Abaltzisketako udal txean. Bertan, Festa Batzordeko ordezkariaren bat izango da eta berak gordeko du jokatu dute diru guztia, alegia, 1.000 euro. «Taldea bakoitzak 500 euro jarriko du eta Batzordeak dirua gordeko du, ekainaren 28ra arte». Txindoki puntara lehena iristen denak 1.000 euro horiek jasoko ditu.

## Urriaren proposatutakoa

Ekainaren 28an Txindoki mendia ahalik eta azkarren igotzean datza proba. Xabier Lasa (Abaltzisketan bizi den arriandarra) alde batetik abiatuko da eta berak bakarrik egin beharko du guztia. Aurkariak Jon Zubizarreta, Iñaki Gorostidi eta Mikel Senperena hirukotea dira. «Gure taldean, bakoitzak bi dearen zati bat egin beharko du, gure esku dago zein zati egin bakoitzak», Zubizarretak azaldu zuen moduan. Beraz, hiruen artean egin beharko dute bidea, bakoitzak zati bat, erreleboka.



Xabier Lasa eta Jon Zubizarreta, atzean Txindoki dutela. N. URBIZU

Xabier Lasa izan zen apustua bota zuena: «Jarri nuen baldintza izan zen, nire aurka ariko zirenak herritarrek izatea». Urriaren 12an proposatu zuen eta handik hilabete batera edo, erantzuna jaso zuen Lasak: hiru herritar prest zeuden lehiatzeko.

Dagoeneko prestatzen hasi dira, baina hirukotearen kasuan, «bakoitzak bere aldetik hasi gara. Aurrerago elkarketa gara korrika elkarrekin egiten hasteko. Bestela, ez gara txapelketatan inoiz aritu; Mikelek zer bait bai, Behobia bi aldiz egin du adibidez». Xabier Lasa ere hasi da: «Entrenatzen hasi naiz. Lesio bat izan dut hankan duela gutxira arte eta hori osatzea

falta zait». Lasa lehenago bizikletan ibilitakoa da eta duela bi urte hasi zen korrika egiten: mendi lasterketan aritzen da. Esaterako, Anboto eta Aizkorri egin ditu.

## Probaren nondik norakoak

Proba bere horretan «gogorra» da, aldapsua delako. «Distantzia aldetik 6 kilometrorra ez da iritsiko, baina esanguratsua eta kontuan hartu beharreko da igo behar den guztia: Abaltzisketa 370 metroko altueran dago, eta Txindoki 1.346 metrora. Tximistatik gora ia ezinezkoa da korrika joatea oso maldatsua delako». Plaza ingurutik aterako dirabi korrikalari, Larraiztik igaro eta Txindoki mendian

gora: Xabier Lasa eta oraindik zehaztu gabeko hirukoteko bat.

Xabier Lasa proba ordu baten azpitik egingo dutenez ia seguru dago. «Ordu batetik gora egingo banu porrota bezala izango litzateke». Kontuan izan behar da, probaren erdia edo, ezingo dutela korrika egin nahiz eta sasoi iritsi, dagoen malda oso gogorra delako.

## Herritarren arteko enkanteak

«Herrian saltsa badago». Nabaritzen da apustua dagoela eta jendea hasi da beraien arteko apustuak egiten. «Herriko bost tabernetan eltxetuak jarri ditugu jendeak euren apustuak egiteko». Pertsona bakoitzak euro bat jokatu ahal izango du enkante bakoitzeko: «Lagun bakoitzak 10 apustu egin ditzake, baina bakoitzak euro bana balio du (10 euro)».

Enkante txiki honetan parte hartzeko garaian izen abizenak eman beharko ditu parte-hartzaileak tabernan, gehi telefono zenbaki bat eta bukatzeko, proba aurreneko egiten duenaren denbora. «Dena zehaztu behar da: (orduak), minutuak eta segundoak ere bai». Behin irabazlearen denbora jakinda eta asmatzailea egotekotan, eltxetxuetan jasotako diruaren %60 emango zaio. Dena dela, aurrerago zehaztasun gehiago emango dituzte.

Lasa baldin bada iristen den lehenengoa, suziri bat botako dute, herrian denek jakin dezaten zein izan den irabazlea. Taldeak irabaziz gero, hiru suziri botako dituzte. Jendea berotuta dago kontu honekin, eta gainera, ekainaren 28an Larraitzen jaia izaten da berez. Apustua ere, noski, jai honen parte izango da. Zubizarretak adierazi bezala, «badakigu batzuk Txindokira igotzeko asmoa dutela, proba bertatik ikusteko: handik ia lasterketa osoa jarrai daiteke».

## Laburrak

### Elkarteko bazkideei bilera izango da gaur 20:30ean

**UGARTE** » Gaur iluntzean, Ugarteko elkarteko bazkideei zuzendutako bilera izango da. 20:30ean izango da bilera eta gai hauek jorratuko dituzte: bazkide berriak ariko dira, ontzi garbitzailearen aldaketaz eta edonork ekar lezakeena bukatzeko. Bilera honetara ahal duen guztiak joatea eskatu du Ugarteko elkarteko batzordeak.

### Aurrera-Saiizen asteburuko norgehiagokak

**PILOTA** » Gaur, Euskadiko Kluben arteko pilota Txapelketako norgehiagokak jokatuko dituzte Aurrera-Saiizkoek Beotibarren 20:30ean hasita. Danok Lagunen kontra dute lehena seniorren mailan eta binaka; gero, 22 urte azpikoena izango dute Legutioko pilotariaren kontra. Bihar, beriz, 10:30ean hasitasenior mailan hiru norgehiagoka izango dira, Añorgakoen, Adurtzakoen eta Arkupekoen kontra, hurrenez hurren (azken hau banaka). Bestalde, Ibarran Udaberri Txapelketako 3 partida izango dira gaur 19:00etan: Gazteleku, Zumaia eta Elordi izango dira aurkariak kadete, jubenil eta seniorren mailatan.

### Zazpi-Itturrik bihar bi partida jokatuko ditu

**AMEZKETA** » Amezetako Zazpi-Itturri pilota eskolak bihar Euskadiko Kluben arteko Txapelketako pilota partidak jokatuko ditu Amezetan, Larrunarri pilotalekuan. Bi partida jokatuko dituzte guztira eta 16:30ean hasiko dira. 22 urte azpikoena izango da lehen norgehiagoka, Zaramagakoen kontra jokatu. Kasu honetan, Roponleunda izango dira. Ondoren, oherzko mailakoen artean Elurbe-Arzelus bikotea Sestaokoek kontra lehiatuko da. Bi bikote hauek «oso ondo» funtzionatzen ari dira txapelketa honetan.

# Leire Olaberria eta Ana Usabiaga Espainiako Pista Txapelketan

**Ikaztegieta** » Bihar arte Mallorcan ariko dira hainbat proba egiten; Olaberriak dominak eskuratzeko aukerak ditu.

## ERREDAKZIOA

Atzo pistako Espainiako Txapelketa hasi zen Mallorcan (Herrialde Katalanak) eta bertan Leire Olaberria ari da; oraingoan ikaztegieta banakako jazarpenekoan, puntuaziokoan, taldekako jazar-

peneko proban eta scratch-en hartuko du parte. Aukera handiak ditu beste domina bat eskuratzeko, baina berez, ez da bere helburua Espainiako Txapelketa irabaztea. Izan ere, Munduko Txapelketa da nahi duena.

Ana Usabiaga Tolosa CFko taldekoa izandako gaztea 200 metrotan, taldekako abiaduran, Keirin, puntuazioan, scratch eta taldekako jazarpenean ariko dira. Atzo iluntzean izan zuen bere lehen proba, 200 metrokoa, hain zuzen ere.

Eustrak taldea zortzi txirrindulari osatzen dute, bost Cespae-Euskadiko taldekoak direnak (Olaberria eta Usabiaga barne). Iaz, urrezko sei domina eskuratu zituen Euskadiko pista selekzioak. Taldeko arduradunek «domina gehiago irabaztea ea posible den», diote.

Guztira 17 emakumek hartzen dute parte Espainiako aurtengo Txapelketan, 10 selekzioetan banatuta. Guztiira 23 titulu daude jokoen eta emakumezkoen artean 8 daude.

2-16 urte

bi urrezko sei domina • judoetako • ikastola

**uzturpe**

herrian nazi eta hezi

Ibarraldean kalitatezko heziketa euskalduna eskaintzen

dei lezaguzu eta bisita antolatuko dugu

maila-kilare 5000 oharren 21 x 13m

9:00etatik 12:30era | 14:30etik 18:00tura

Egialde 2, 20400 Ibarra | Tel.: 943 67 12 99 | Faxa: 943 67 56 32 | ibarra@ikastola.net | www.uzturpe.net

# Bizikleta Martxa antolatu dute biharko «AHTri ez esateko»

**Alegia** » Tolosaldeko gaztetxe eta gazte asanbladek Alegiatik Anoetarako bidea egingo dute 15:30ean abiatuta.

Ander Lizarralde eta Eneritz Zabaleta direlarik gonbidatutako bertsolariak.

## Ibilbide luzea

Ez da lehenengo aldia Tolosaldeko gaztetxe eta gazte asanbladak Abiadura Handiko Trenaren aurka biltzen direla. Izan ere, «proiektu txikitzaile hau da inoiz Euskal Herriari inposatu nahi izan zaion handiena», esan dute komunikabideei igorritako prentsa oharrean. Horiek horrela, iaz egindako Bizikleta Martxa eta pasa den urtarrilaren 10ean Tolosako Triangulon burututako ekintzak ekarri dituzte gogora. Gaztetxe eta gazte asanbladek, era berean, mobilizazio hauek guztiak zergatik egiten dituzten ere argitu dute: «Ezetz esaten diogulako txikizioari, ezetz inposizioari, ezetz neoliberalismoari. Gazteok izango baikara



Pasa den uztailean Elkarlanak deitutako Bizikleta Martxaren irudia. A. IMAZ

## ERREDAKZIOA

Tolosaldeko gaztetxe eta gazte asanbladek Bizikleta Martxa antolatu dute biharko. Ekintza honekin «AHTri ez» esan nahi diotela argitu dute.

Ibilbidea 15:30ean hasiko da Alegian, eta Tolosatik eta Villabonatik igaro eta gero Anoetan amaituko da. Tolosako geldialdian, gainera, askaria egingo dute partehartzaileek. Behin Anoetara helduta triki-poteoa, ekitaldia eta manifestazioa izango dira. Eguna borobiltzeko berto-afaria ere antolatu dute, Hamaika Bertuteko

AHTaren ondorio kaltegarriak zuzenean jasango ditugunak, gure garelako etorkizuna, nahiz eta oro har, Euskal Herria osoak jasango dituen. Horregatik, argi utzi nahi diegu herriaren hitzaren gainetik proiektu txikitzaile hau aurrera atera nahi dutenei oker dabilzala eta aurrean izango gaituztela ama-lurraren defentsan».

Abiadura Handiko Trena egiteko «xahutuko» duten dirua «herri-tarrok beharrezko ditugun beste hainbat alorretara» bideratzeko

ere eskatu dute: «Hala nola, hezkuntzan, etxebizitzetan edota oinarrizko garraiobide publikoetan eraikuntzan».

## Manifestazioa otsailaren 14an

Bukatzeko, datorren otsailaren 14an, larunbata, Tolosan egingo den manifestazioa joateko deia ere luzatu dute. Manifestazio honenkin treina igaroko den herriei euren babesa eskaini nahi dio AHT Gelditu! Elkalanak eta 17:00etan abiatuko da Triangulotik.

## Laburrak

### Gaur inauguratuko du Uzturpek haur eskola

**IBARRA** » Ibarra Uzturpe Ikastolak herritar guztiak gonbidatu nahi ditu gaur 19:00etan egingo duten haur eskola berriko inaugurazioa. Eraikin berria Emeterio Arrese plazan dago eta irailetik martxan badago ere gaur egingo dute inaugurazio ofiziala herri osoarentzat. Ekitaldi xumea izango dela esan dute ikastolako arduradunek eta gerturatzen direnek eraikin guztia ikusi ahal izango dute.

### Silo bolen plastikoen bilketa, hilaren 19an

**ELDUAIN** » Elduaingo Udalak silo bolak egiteko erabiltzen den plastikoen bilketa hilaren 18an, asteazkena, egingo dutela jakinarazi du. Artaxu baserriaren ondoko bilketa puntura eraman beharko dira (hesi horiekin dagoena) eta lotuta eramateko eskatu du Udalak, bestela haizeak bola hauek altxako baititu. Bilketa, hala eta guztiz ere, hurrengo egunean, hilak 19, egingo dute. Udalak era berean, zerbitzua doakoa dela esan du, baina plastikoa bakoitzak garraiatu beharko ditu Artaxu baserriaraino.

# Aiton-amonon eskolak hasiko dira hil honetan

**Ibarra** » Bilerak Kultur Etxean izango dira hilean behin, astelehenetan, eta lehen saioa hilaren 16an izango da.

## ERREDAKZIOA

Ibarra Udalak eta Uzturpe ikastolak aitona-amonon eskola abiartzeko du. Eskola hauek «aitona eta amona, semea eta alaba, eta biloben arteko harremanetaz hitz egiteko bilgune» direla adierazi dute.

Bilera hauetan gai hauek jorratuko dituzte: autoestima -bikotearen eta norberaren ezaugarriak eta

mugak, guraso izatearen gainetik bikotea indartzearen garrantzia, bakoitzaren rola, lekua... nola kokatu eta ilobak zein beraien gurasoen arteko harremanak. Eskolak Maria Jesus Urangak eta Ana Elosegik zuzenduko dituzte, familia terapeutak eta guraso eskolako zuzendariak direnak, hain zuzen.

Bilerak hilean behin izango dira, astelehenetan 15:45etik 17:15era, lehen saioa hilaren 16an izango da eta ekainaren 8an azkena. Kuota 10 eurokoa da.

Izen-emate epea hilaren 13an amaituko da eta Udal Gizarte Zerbitzuetara jo behar da horretarako, 09:00etatik 13:00etara.



# Aldaketak herriko zirkulazioan

**IBARRA** » Ibarra zirkulazioan aldaketak izan dira aste honetan Oria ibaian eraikitzen ari diren kolektorearen obrak direla eta. Batetik, bi semaforo jarri dituzte Euskal Herria kalean errepideko bide bakarretik joan dai-

telkelako eta, bestetik, Julian Gayarre kalera joateko bidea (anbulatorio inguruan) guztiz itxi dute, autoak ezin direlarik handik pasa. Obrak denbora baterako luzatuko direla esan du Udalak. R.CALVO



**EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

**E Elkarrizketa**

**MIGEL MARI ELOSEGI 'LUZE'** › Bertsolaria

**Leitza** » Nafarroako Bertsolari Txapelketari 'Bidean' leloa jarri diote. Bidean aurrera egiteko asmoz joango da Betelura 'Luze' etzi, Txapelketako azken-laurdenetara.

**ASIER IMAZ**

Nafarroako Txapelketa iragan asteburuan jarri zuten martxan 6 bertsolarik. Bigarren azken-laurdenak bihar jokatu dira Igantzin eta hirugarren kanporaketa Betelun ospatuko dute etzi, 17:30ean. Bertan egongo da Migel Mari Elosegi (Leitza, 1970) bertsolaria. Aste honetan, Agate Deunaren Bezperan, herrian aritu zen kopletan.

**Iazko finalaren atarian, kineietan ez zinela ateratzen aipatu zenuen. Eta aurten?**

Ez dut uste aurtengo kineietan ateratzeko arrazoi handirik eman nuenik iaz. Beste bertsolari batzuk oso lan polita egin zuten eta normala da jendeak hauengan fede handiagoa izatea.

**Bost urte Txapelketan. 2007an zazpigarren; 2008an berdin, eta gripearekin gainera.**

Bai, iaz larri xamar ibili nintzen finaleko bezperan, baina egia esanda, finalean bertan ongi nengoela uste dut. Hori bai, saioa bukatu eta ezin nuen bururik eutsi ia. Gauzak hala izaten dira eta hilabetez aurretik badakigu finala noiz den. Gripa bezperan azaltzen bada, ez dago beste aukerarik: beste bati lekua utzi, edo joan eta ahal dena egin. Nik horixe egin nuen.

**Aurten saio gehiago egongo dira Txapelketan. Julen Zelaieta Txapelduna izan ezik, denak behe-behetik hasiko zarete.**

Ni pozik nago zerotik hastearekin. Batetik, alde txarra badu, sailkapen-fasean 10 bertso botatzen baitira, eta hori neurri batean kineila bat da, gaia, kantu laguna edo mementoaren arabera gauza onik ez egitea gerta baitaiteke. Baina beste alde batetik normalean plazarik ez dugunontzat jendearen aurrean kantatzeko beste aukera bat da, eta bigarren alde hori ona da oso.

**Bidean gelditzeko beldurrik bai?**

Ez dakit hitza beldurra den. Kezka behintzat, bai. Ez dut uste alde handiegirik dagoenik batzuen eta besteen artean, eta hobekixeago edo okerxeago eginda, aurre-aurreren edo bidebazerrean buka dezake batek.

**Nolako bertsolaria da 'Luze'?**

Bertsosaleagoa naiz bertsolari baino. Betidanik gustatu izan zait eta duela sei bat urte Leitza 3 edo 4 zale elkartzten eta kantari hasi ginen. Gero txapelketan izena eman genuen eta haseran, nire burua bertsolarien artean ikusita grazia egingen zidan. Pixkanaka ordea, ohitzen joan naiz. Nire espezialia-



A. IMAZ

# «Silveira hautagaia da baina erne Sotorekin, une oso politean dago»

dadeak bertsoak ihes egitea eta po-toa dira, baina okerrak disimulatu-zen ikasten ari gara.

**Txapelketaren lehen kanporaketa jarraitu al zenuen?**

Bai. Pozgarria izan zen Auritzen 120 lagun biltzea. Ume guztiak euskaraz ikusi genituenen harrituta gelditu ginen, etazeresanik ez, Aimar Karrika auriztarrak lehen postua atera zuenean. Saioa Alkai-azke ere txukun egin zuen, eta 18 urte besterik ez ditu. Bitor eta Bar-berena ongi aritu ziren eta Elize-

txek eta Alaznek ez zuten eman zezaketenguztia eman.

**Beteluko saioan, igandean, bertsolari gazte inguratuta egongo zara, nahiz eta zu ere bertso munda-  
duan gaztea izan.**

Erika oso ongi aritu da azken urte-otan eta lan polita espero dut berarengandik. Ibarra beterrano bat da, eta euskara polita eta aberatsa ibil-tzen du. Fuentes iaz hasi zen txapelketan eta arrazoi txukunak ent-zun nizkion. Inaki Aleman gaztea da baina izatez, lege zaharreko

bertsolaria da. Saragueta ere aspaldi dabil, bere herrian abesten du, eta tiro politik botatzen badaki.

**Aurkariak etsai bezala ikusten dituzu ala zeure burua da etsai nagusia?**

Uste dut ez naizela oso lehiakorra. Etsairik ez dut inoiz ikusi bertso-tan. Nik behintzat, ahal den neurrian elkarrizketa ongi joan dadin saiatzen naizela uste dut, eta saioe-tan gehienak elkarri laguntzeko prest egoten dira. Seguruenik etsai nagusia nire burua izanen da.

**Egin beharreko ariketetan, zein duzu gustukoena?**

Uste dut saio politenak hamarreko txikian egin izan ditudala, baina kartzeleko lan txukun askoak at-era izan zaizkit.

**Eta zailtasun gehien sortzen dizkizun ariketa?**

Puntuak erantzutea, inolako zail-tzaririk gabe

**Diego Riaño leitzaarra ere jokoan da. Nola ikusten duzu herrikidea?**

Inauterietan Leitza aritu zen eta txukun ikusi nuen. Urtean zehar saio batzuk egiten ditu Hamaika Bertutekoekin, oso ongi abesten du, eta plaza gizona da. Ongi ikus-ten dut.

**Xabier Silveiraren itzulera urtea izango da aurtengoa. Txapela jazo-  
teko hautagai nagusia bera dela iruditzen al zaizu?**

Silveira hautagaia da, zalantzarik gabe. Dena dela, erne Julio Sotore-kin! Azken aldiari berarekin bitan aritu naiz eta oso ongi ikusi dut. Edozeini egurra emateko moduan. Ezin da beste inor baztertu baina Julio memento politean dago.

**Nola prestatu duzu txapelketa?**

Urtean zehar asten behin elkar-tzen gara 3 edo 4 lagun Leitza. Orain Lekunberrira bueltaren bat egingen dut eta baita Mugairera ere, beste bertsolari batzuekin aritzeko. Azken plaza festetan izan nuen, santiburtziotan, eta Santa Ageda-ko koplak kantatzea izan da jende aurrean egin dudana lan bakarra. Beste saioak entzuten ere saiatuko naiz.

**Pirinioetako hartz arrearen inguru-  
an idatzi duzu, baita animalien-  
tzat ubideek duten arriskuaz. Ba-  
sozaina, biologoa, idazlea...**

Bai, badakizu; hamaika ofizio ha-mabi mixerri.

**Bertso eskolaren ikasturte berria martxan jarri duzue Leitza. Zein da zure papera bertan? Ikasle, irakasle...**

Zirikatzaila izandu naiz. Aspaldi genbiltzan helduen bertso-eskola martxan jarri nahian Leitza eta azkenean lortu dugu. Euskara Zerbitzuak eta Udalak laguntza eman dute, Aurreran leku egokia dugu, eta Joxema Leitza da irakas-lea. Eta 15 lagun dauzkagu bertso-eskolan! Oso-oso pozik nago horrekin.

**Hona hemen bertso batetarako puntua: Zelan dabil 'Hartz arrea Pirinioetan'?**

Giro alu hauekin egonen da sies-tan./Oraindik gutxi batzuk irau-  
n dute bertan./Ea zer eitten duten dotozen urtetan.

**Kartzelako gaia: 'Ubideetako he-  
riotza'. Energia berdearen ondorio  
beltza'.**

Ezkurra aldeko ubidetara/maiz egiten dugu bira./Eta tristetu egi-ten gara./hildako ardiei begira./Erori eta irten ezinda/bertan ito-tzen baitira./Ezin besterik adiera-zi/arazo honen harira./Ez zela bertan alerik hilko/ongi itxiko ba-lira.



**Argitaratzailea:** Tolosa Herria Hedabideak S.L.  
**Lege Gordailua:** SS-0398-03  
**Zuzendaria:** Noelia Lataburu  
**Egoitza nagusia:** Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.  
**Telefonoa:** 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18  
**Leitza:** Herriko plaza, 1.687 410 118  
**E-posta:** tolosaldean@tolosaldeko hitza.info.  
**Webgunea:** www.tolosaldeko hitza.info

**Zuzendariordea:** Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.  
**Publizitatea:** 661 678 818 tolosaldean\_public@tolosaldeko hitza.info.  
**Tolosa:** 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko hitza.info.  
**Villabona:** 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko hitza.info.  
**Anoeta:** 687 410 022. anoeta@tolosaldeko hitza.info.  
**Ibarra:** 687 410 032. ibarra@tolosaldeko hitza.info.  
**Alegialdea:** 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko hitza.info.  
**Leizaldea:** 687 410 118. leizaldea@tolosaldeko hitza.info.

**Tolosa Herria Hedabideak**  
**S.M.ko kideak:**



eta Tolosaldeko eta  
Leizaldea beste 77 eragile

**Hitza-k Bai**  
**Euskarari**

**'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:** Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Armezeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako  
Foru  
Aldundia

**Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua** (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

## A Agenda

### Deialdiak

■ **Ibarra.** Uzturpe ikastolak Emeterio Arrese plazan egindako eraikin berria inauguratuko dute 19:00etan.  
■ **Tolosa.** Inauterietarako karroza eta konpartsetan izena eman dai-teke Kultur Etxen 10:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 19:00etara.  
■ **Tolosa.** Inauteri kontzertua pres-tatzeko, deialdi berezia egiten zaie

Tolosako Musika Bandako kide ohie, hilaren 10 eta 12ko entse-guetara, 20:15ean.

■ **Tolosa.** GKO Galeriak antolatuta, XTRM artista goerriarrak murala egingo du zuzenean Zerkausion.  
■ **Tolosa.** Bihar XIV. Zuhaitz Eguna Trianguloan: zuhaitzen erakusketa eta salmenta.

### Kirolak

■ **Ibarra.** Igandean mendi irteera

Zeraingo meategitara Uzturpe ikastolaren Kultur Astearen ba-rruan.

■ **Asteasu.** Bihar eta etzirako eski irteera antolatu du Sagain mendi taldeak Luz Ardiden-era. Informa-zio gehiago, [www.sagain.org](http://www.sagain.org) helbi-dean.

■ **Tolosa.** Alpino Uzturre elkarteak 8rako irteera bat antolatu du Bal-masedatik San Juan de Berbikeze-rra, Trasmosomos (698 m.) eta

llo (564 m.) mendiak igoz. Irau-pena bost ordu t'erdikoa da. Izen-erateak elkarteak, 943 65 27 89 edo [alpinouzturre@hotmail.com](mailto:alpinouzturre@hotmail.com) helbidean.

■ **Villabona.** Aizkardi mendi elkar-teak Sunbilla - Aizkolegi (841m) - Legate (870m) - Lekaroz mendi ibilaldia antolatu du hilaren 8rako. Informazioa eta izen-ematea, elkarteak ostegunetan 20:00etatik 22:00etara (649 717182) edo [aizkardi@aizkardi.com](mailto:aizkardi@aizkardi.com) helbi-dean.

■ **Villabona.** Umeen eski irteera (Somport) antolatu du Aizkardi mendi elkarteak hilaren 14 eta 15erako. Informazioa, elkarteak bertan ostegunetan 20:00etatik 22:00etara (649 717182 telefono zenbakian).

### Zinema

■ **Leitza.** *Las horas del verano* filma emango dute zinemak gaur 22:30ean eta etzi, igandean 19:30ean.

■ **Tolosa.** *My blueberry nights* filma Leidor aretoan, gaur 22:30ean, etzi 22:00etan eta as-telehenean (Ikuslearen eguna) 20:30ean.

■ **Villabona.** *La Ola* filma ikusi ahalko da Gurean gaur 22:00etan, bihar 19:30ean eta 22:30ean, etzi 19:30ean eta otsailaren 9an, aste-lehenean 21:30ean.

### Erakusketak

■ **Tolosa.** Juan Jose Agirre tolosa-rraren margolan erakusketa Aran-buru Jauregian.

### » GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Tolosa.** Azpiroz, L. Amarotz au-zoa, 9. 943 675118.  
■ **Arribe.** Garmendia, A. Kale Na-gusia, 112.  
■ **Irurtzun.** Gastearena, M. Amaya kalea, 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esanen eta iritzien erantzunik.

## A Agurrak



### Urte askoan

**Zorionak Peio.** Jo ta ke irabazi arte! Besarkada handi bat Oskarrentzako.

**Irurako Ikastola**

• (2-12 URTE)  
• Lehen Hezkuntza

'HAZI ETA HEZI HERRIAN BERTAN'

San Migel, 5 • 20271 IRURUA • Tel.: 943 69 43 74 • [irura@ikastola.net](http://irura@ikastola.net)



Otsailak 14

Inauterietarako festa handia  
Brasilgo **inauterietako** ikuskizuna  
eta SanValentin **beroa**

**Striptease** mutil/neska goizeko 4:00tatik aurrera  
Itxierako ordutegi berezia

Otsailak 21

DISKOTEKA saioa

Otsailak 28

SU TA GAREn kontzertua

[www.salamuxu.com](http://www.salamuxu.com)

Sala muxu • Albisualdea industrialdea 31 zkia. • LEKUNBERRI